

FONETIKA BATURUNTZ (Zenbait proposamendu)


Bergara, 1978-IX-6

Txillardegi

1. BOKALEAK (erd. vocales, voyelles)

1.1. Bost fonema ahokari onartzen dira Euskal Fonetika Batuan bokaleen sailean: /i, e, a, o, u/.

1.2. Beroien balio fonetikoaz luzaz hitzegin baliteke ere (inguramendu fonikoaren eragina, zabalera txikiko euskalki aldakuntzak, eta abar), gaur euskaraz eskuarki duten balio fonetikoa izango dute. Hellwag-en triangeluaren arabera finkatzekotan:



1.3. Nafarroako zenbait lekutan entzuten diren [o] he-tsiak, [dosol] (= duzu); bizkaiko kostaldeko [ae] -ak, [burúae], eta abar, lekuan lekuko euskalki mailako esakeratzat uzten dira alde batera.

1.4. Zuberoako /ü/ fonema (eta Lapurdiko eta Baxena-barreko zenbait lekutan ere fonema maila iritsi gabeentzun daitekeen soinua) ez da Fonetika Batuaren ebakeretan sartzen.

1.5. Fonema sudurkariak /ã, ě, õ, ü/, era berean, zubereraz batez ere bizirik, euskalki mailako fenomenotzat jo, eta bazterturik uzten dira.

2. *KONTSONANTEAK* (erd. consonantes, consonnes).

2.1. *Leherkariak* (erd. oclusivas, occlusives).

2.1.1. *Ahoskabe / ahostun* bikotezko korrelaziotan agertzen diren zortzi fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{tt}{dd} = \frac{k}{g} \longrightarrow \text{(ahoskabe)} \\ \longrightarrow \text{(ahostun)}$$

2.1.2. Beroien balio fonetikoa, berbera gaur Euskal Herrp guztian, hau izango da:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{t'}{d'} = \frac{k}{g}$$

2.1.3. "dd" idazkerak, horretara (Maddi, Maddalen), [d'] adierazten du; alegia, [j] soinua, yod erdi-bokalea, gazteleraz "y" idatzia (ayuno).

2.1.4. "tt" idazkerak, berriz, ((ttantta, ttoro), kiderik ez du ondoko erderetan; eta honetara ahoskatuko da: [t'ant'a], [t'oro].

2.1.5. Askotan, "tt" eta "dd" idazkerak, jatorrizko "it" eta "id" idaroki baditzake ere [dit'ut, it'o], alegia: ditut, ito; ez da hori beti gertatzen (lehen aipatutako, ttantta, ttoro). Ebakera bustia lehenengoetan beharrezkoa ez bada ere, bigarrenetan beharrezkotzat jotzen da.

2.1.6. /b, d, g/ ahostunak, bokale artean gertatzen direnean, igurzkari egiten dira eskuarki; eta gazteleraz gertatzen denaren arabera, baina frantsesez gertatzen denaren aurka, [b], [d], eta [g] ebakitzen. Posizio hauetan, beraz, gaitzetsi egiten da /b, d, g/ fonemak leherkari gisa ahoskatzea.

2.1.7. Iparraldean zenbait kasutan gertatzen den ebakera hasperendua [ephe, urthe, bekhatu], euskalki mailako fenomenotzat jo, eta Fonetika Batuan baztertu egiten da.

2.2. *Igurzkariak* (erd. fricativas, fricatives).

2.2.1. Euskalkiren batez fonema horzkari eta apikarien arteko desberdintasuna: /z/ ≠ /s/, eta /tz/ ≠ /ts/, ahulduta edo galduta dagoela jakinik ere, hiru ordenuen beharra hartzen da gidari Fonetika Batuan.

2.22. Zein bere afrikariarekin korrelaziotan agertzen diren sei fonema hauek onartzen dira:

$$\frac{z}{tz} = \frac{s}{ts} = \frac{x}{tx}$$

2.23. Beroien balio fonetikoak hauek dira:

$$\frac{s}{c} = \frac{s'}{c'} = \frac{\check{s}}{\check{c}}$$

2.24. Gaurko fonemen bizia kontutan hartuz, batetik; baita fonemen korrelazio bila joanda ere, eta integratu gabeko fonemen ahulezia gogoratzuz, hiru fonema pare horien kide ahostunak /z, z', z/ ez dira Fonetika Batuan onartzen. Zuberoraz eta Baxenabarren entzuten direnak [ezne, kaz'eRna, žoan]; eta Bizkaiko zenbait lekutan entzuten den ž, [žan], lekuko euskalki mailako fenomenotzat uzten dira alde batera.

2.25. /i/ fonemaren ondoko /s/ eta /ts/ apikariaren bustiera oso zabaldua denez gero, [is'] eta [ic'] ebakera gaitzetsi gabe ere, hobetzat jotzen da Fonetika Batuan [iš] eta [ič]. ebakitzea. Esate baterako: isuri (= [išuri]), itsusi (= [ičus'i]).

2.3. *Sudurkariak* (erd. nasales, nasales).

2.31. Hiru fonema sudurkari onartzen dira: /m, n, ñ/.

2.32. Beroien balio fonetikoak hauek dira: [m, n, n'].

2.33. "ñ" guztiak ez dira "in"-en ondorio: ñirñirkari, kantuño. Ez da ontzat ematen, hortaz, kasu horietako /ñ/ fonemak [in] ebakitzea.

2.34. /i/ fonemaren ondoko /n/ bustitzea (= [in']) oso zabaldua denez gero, [in] ebakera gaitzetsi gabe ere, [in'] ebakitzea hartzen da hobetzat Fonetika Batuan; baino (= [ban'o]) hobetsia; egin (= [egin'a]) hobetsia.

2.4. *Albokariak* (erd. laterales, latérales).

2.41. Bi fonema onartzen dira: /l, ll/; sudurkarietako korrelaziotan:

$$\frac{l}{n} = \frac{ll}{\check{n}} \quad \begin{array}{l} \text{(albokari)} \\ \text{(sudurkari)} \end{array}$$

2.42. Beroien balio fonetikoak hau izango da: [l], [l'].. Ez da onartzen, hortaz, /ll/ fonema [j] gisa ebakitzea.

2.43. "ll" guztiak ez dira "il"-en ondorio: llabur, lloba. Ez da ontzat ematen, kasu horietako /ll/ fonemak [il] ebakitzea.

2.44. /i/ fonemaren ondoko /l/ bustitzea (= [il']) oso zabaldua denez gero, [il] ebakera gaitzetsi gabe ere, [il'] ebakera hartzen da hobetzat Fonetika Battuan: hilabete (= [il'abete] /; ilargi ([il'aRgi]).

2.5. *Dardarkariak* (erd. vibrantes, vibrantes).

2.5.1. Bi fonema hauek onartzen dira: /r, rr/.

2.5.2. Beroien balio fonetikoa hau izango da: [r, R]. Baina, kasu honetan, bai "r" eta bai "R" idazten dugunean, apikariak adierazi nahi ditugula; alegia, gazteleraz edo kas-koineraz (baina ez frantsesez) ematen diren bi dardarkarien kideak: [oRua], [sagaRa].

2.5.3. Iparraldeko euskalkietan sartzen hasi berria den frantses kutsuko [ʁ] ebakera [eʁan, gaʁaca] ez da onartzen.

2.5.4. Kontsonanteren aurrean, /r/ eta /rr/ fonemen artean neutralizazioa gertatzen da [R] ren alde: [uRte], [oRc]. Gauza bera hitz amaieran, erdi galdurik dauden berezkuntzak aparte [ser], [sur], eta abar.

2.6. *Aspiraketa* (erd. aspiración, aspiration).

2.6.1. /h/ fonema bakarraren ebakera [∅] (=zero) izango da: hartu (= [aRtu]), ehun (=eun]). Ez da gaitzesten, halere, /h/ fonemari balio fonetikoa ematea: [haRtu], [ehun]. Gaitzetsi egiten da bereziki, ordea, /h/ fonema [x] ebakitzea, gaztelarazko "j" letraren balio fonetikoaz: [xaRtu], [exun].

2.6.2. Idazkera klasikoaren arabera gertatzen delarik (ephe, urthe bekhatu), /ph, th, kh/ fonemen balio fonetikoa, [p, t, k] izango da: [epe, uRte, bekatu]. Aspiraketaz ebakitzea, 2.17-an esan denez, euskalki mailako ebakeratzat hartzen da.

2.6.3. /lh, nh, rh, rrrh/ fonema bikoteak, [l, n, r, R] ebakiko dira. Esakera hasperendua, euskalki mailako ebakera-tzat jartzen da.

2.7. *Ezpain-horzkariak* (erd. labiodental, labiodental)

2.7.1. Fonema bakar bat onartzen da ordenu honetan: /f/ delakoa.

2.7.2. Bere balio fonetikoa [f] izango da, ahoskabea beraz.

2.8. /j/ fonema.

2.81. Gaurko euskararen egoera kontutan hartuta, eta 2.24 puntuan adierazitakoak ahaztu gabe, euskarazko /j/ fonemaren balio fonetikoa [j], erdi-bokalearena izango da: [jan]; gazteazko "y" -ren kidea: ayer, yo.

2.82. Ez dira, halere, [ʒ], zaharra eta [x] berria gaitzesten [ʒan, xan]; baina euskalki mailako ebakeratzat uzten dira alde batera.

3. *DIPTONGOAK. HIATOAK.* (erd. diptongos, diphtongues; hiatos, hiatus).

3.1. *Diptongoak.*

3.11. Fonetika Batuan, ondoko bost diptongo hauek onartzen dira: *ai, ei, oi, au, eu*. Diptongo hauek beherunzkoak dira; eta azentua lehenengo bokalean daramate.

3.12. "ahi, ehi, ohi, ahu, ehu" fonema hirukoteen balio fonetikoa, hauxe izango da eskuarki: [ái, éi, ói, áu, éu]. Baina *h* galdu berriari dagokion hiato bisilabikoaren ahoskera gaitzesten ez delarik: [baitu, eún].

3.13. Zenbait lekutan ezagutzen diren diptongo gorunzkoak [ja, je, jo, wa, we], euskalki mailako ahoskeratzat baztertzen dira: [maitia], hirukuna bai, [maitja], bikuna euskalki ebakeratzat uzten; [s'ueRte], hirukuna bai, [s'weRte], bikuna ez.

3.14. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuan sortzen diren diptongoei buruz.

3.2. *Hiatoak.*

3.21. *ia, ie, io, ua, ue* bokale bikoteek hiato emango dute Fonetika Batuan; azentoa, izatekotan, lehenengo bokalean doalarik. Ebakera, hortaz, bikuna izango da: [mendia], eta ez [mendja], [eskua], ta ez [es'kwa].

3.22. *ee* eta *oo* hiatoak, [ie], eta [uo], ebakiko dira = semeen (= [s'emien]; zozook (= [sosuok]).

3.23. Lege berberak onartzen dira kate mintzatuko hiatoei buruz.

4. *FONEMEN ELKARKETAZ*

Sandhi batzu bakarrik onartuko dira Fonetika Batuari buruzko Txosten honetan: tradizioak batetik, eta ebakeraren hedakuntzak bestetik, horretaratzen gaituztenak.

4.1. $ea = \begin{cases} ia \\ oa \end{cases}$

Joera hau euskalki guztietan barrena, bai barne bai kanpoko sandhitan oso zabaldua dagoenez gero, hobetzat emango da, [ea] eta [oa] ebakera baino: besoa (= [bes'ua]), maitea (= [maitea]).

4.2. (s, z) + (b, d, g) = (sp, st, sk; zp, zt, zk).

Euskal asimilakuntzaren legea arrunt beteaz, suskarazko xixtukariak, aurretik joaki, ahoskabeak direnez gero, ahoskabetu egiten dituzte ondoko leherkari ahostunak: apaiz bat (= [apaispat]), goiz da (= [goista]), desgrazia (= [des'krasia]).

4.21. Lege honen arabera, eta beste kasutara ere hedatuz, hona hemen "ez" ukazioak aditzaren jokaeran barrena sortzen dituen ebakerak: ez b- (= [esp-]); ez d- (= [est-]); ez g- (= [esk-]); ez n- (= [en-]); ez h- (= [eh-] eta [e-]); ez l- (= [el-]; eta ez z- (= [ec-]).

Adibidez:

ez badago (= [espaɗago]).

ez dakit (= [estakit]).

ez gabiltza (= [eskabilca]).

ez nuke (= [enuke]).

ez hintzela (= [eíncela]); [ehintzela].

ez litzateke (= [elicateke]).

ez zekien (= [ecekien]).

4.3. Bide beretik:

(tz, ts) + (b, d, g) = (zp, zt, zk; sp, st, sk)

Adibidez: hitz bat (= [ispat]).

4.4. (t, k) + (b, d, g) = (p, t, k)

Oharra: aurreko leherkaria erabat galtzen da.

Adibidez: bat bere ez (= [bape(re)s]); piperrik be (= [pipeRipe]); nork du (= [noRtu]).

4.41. Honen ondorioz, ondoko hauek hartu behar dira gogotan *bait* aurrizkiak: bait d- (= [bait-], [baitatoR]); bait g- (= [baik-], [baikara]); bait n- (= [bain-], [bainekien]); bait h- (= [bai-], [baiatoR]); bait l- (= [bail-], [bailicatekel]); bait z- (= [baic-], [baicion]).

4.5. (l, n, r) + (z, s, x) = [lc, nc, rc;
lc', nc', rc'; lc, nc, rc].

Adibidez: hil zen (= [ilcen]); esan zigun (= [es'anci gun]); hor zegok (= [oRcegok]).

4.6. (i) + (l, n, t, s, ts) = [il', in', it', iš, ič].

Bustidura gerta daitekeen kasu hauetan, eta aurreko arauetan azaldu denaz, normalagotzat hartzen da ebakera mordo hau, bustidurarik gabea baino.

5. *ERDARATIKAKO BAHITURAK* (erd. préstamo, emprunt).

5.1. Erdarazko *r*- haserari, *arr*- edo *err*- dagokio euskaraz. Zientzi hitz berrietan ez izatekotan (razional, rotazismo), ez da *r*- euskal haserarik onartzen.

5.2. Aspaldidanik, erdarazko (p-, t-, k-) fonemei, euskal (b-, d-, g-) dagozkie eskuarki. Hortaz:

5.21. Bahitura zaharra delarik, eta euskalkietan bata eta bestea aurkitzen direnean (bake, pake; gorta, korta), fonema ahostunekoak hobetsiko dira (bake, gorta).

5.22. Bahitura berrietan, eta zientzi-hitz bereziren bat ez izatekotan (penizilina, teatro), lege zaharrari eutsiko zaio: bortu, daratulu, gorbata.

5.23. Joera berberari eutsiko zaio *l* eta *n* -ren ondoan; euskalkietan barrena bi moldeak elkarren ondoan daudelarik, ahostunekoa hobetsiz: 'denbora' hobe 'denpora' baino, 'aldare' hobe 'altare' baino.

5.3. Erdarazko (s'-ri, euskaraz (z-)- dagokio: zaku, zoru, zorte. Zientzi edo Soziologi hitz bereziren bat ez izatekotan (semantika, sozialismo), eutsi egingo zaio joera zahar horri.

5.4. Erdarazko (b-)-ri, euskaraz (m-) dagokio: miñagre, mandil.

5.5. Erdarazko bokale arteko -n- galdu egiten da euskaraz: anate > ahate (aate, ata).

5.51. Joera honen hildotik, erdal -ción/ -tion atzizkiari, -zio dagokio euskaraz eskuarkienik: erd. nación, nation; eusk. nazio. Gainerako euskal aldaketak (nazione, nazino) euskalki mailakotzat hartuko dira Fonetika Batuan.

6. *AZENTOA* (erd. acento, accent).

Gutxi gora-beherako lege batzu dagoenetik arrisku handiegirik gabe eman balitezke ere, arazo nagusi honek beste txosten berezi eta oso bat merezi du ondoko hilabeteetan.

Hiztegi-Eraskina

africada, affriquee	: AFRIKARI
apical, apical	: APIKARI
ascendente, ascendent	: GORUNZKO
aspirada, aspirée	: HASPERENDU
dental, dental	: HORZKARI
descendente, descendat	: BEHERUNZKO
dialecto vasco, dialecte basque	: EUSKALKI
fricativa, fricative	: IGURZKARI
labial, labial	: EZPAINKARI
líquida, liquide	: URKARI
nasal, nasal	: SUDURKARI
oclusiva, occlusive	: LEHERKARI
oral, oral	: AHOKARI
palatal, palatal	: SAPAIKARI
pronunciación, pronunciation	: EBAKETA,
pronunciar, prononcer	: AHOSKETA
sibilante, sifflant	: EBAKI, AHOSTU
sonora, sonore	: XIXTUKARI
sorda, sourde	: AHOSTUN
uvular, velaire	: AHOSKABE
vibrante, vibrant	: ZINTZURKARI
	: DARDARKARI